



 EUSKADI  
+EKOLOGIKOA

 EUSKADI  
+DIGITALA

 EUSKADI  
+ERRESILIENTEA



## OHIKO GALDERAK ETA ERANTZUNAK

2023ko abendua

# AURKIBIDEA

GOBERNANTZA.....	1
SEEP KUDEATZEKO SISTEMAK .....	5
CoFFEE .....	7
IRUZURRA PREBENITZEA, ZUZENTZEA ETA HAUTEMATEA.....	9
INTERES-GATAZKA.....	12
FINANTZAKETA BIKOITZA.....	15
AZKEN HARTZAILEA IDENTIFIKATZEA .....	16
KOMUNIKAZIOA .....	17
PROZEDURAREN ESKULIBURUA .....	18
KONTROL PLANA .....	19



## GOBERNANTZA

### 1. Zer da Next Generation-EU programa?

Programa bat da, aldi baterako egina, COVIDaren pandemiak momentu hartan eragindako kalte ekonomiko eta sozialak konpontzeko, eta Europako ekonomiaren eraldaketa bultzatzeko, eredu iraunkorrago, erresilienteago, inklusiboago eta lehiakorrago baterantz. 750.000 milioi euro dakartza berekin, Europar Batasuneko estatuen artean banatzeko 2021-2026 urteetan. Diru horretatik, 360.000 milioi euro, mailegu itzulgarriak emateko erabil daitezke; eta 390.000 milioi euro, berriz, transferentzia itzuliezinak egiteko (Kontseiluaren 2020/2094 EB Erregelamendua, abenduaren 1ekoa).

### 2. Zer da Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM)?

Next Generation-EU programako tresna nagusia da. Batasuneko estatuetan inbertsioa eta erreformak bultzatzea du helburu, susperraldi jasagarria eta erresilientea lortzeko, eta, aldi berean, Batasunaren lehentasun ekologikoak eta digitalak sustatzeko. Funtsak banatzeko aukeratu den irizpideari esker, iritsi behar zaionari iritsiko zaio finantza-laguntza, alegia, pandemiaren erruz eta jarduera ekonomikoa murrizteko neurrien ondorioz egoera ekonomikoa eta soziala gehien okertu zaien estatuei (EB 2021/241 Erregelamendua, 11. eta 14. artikulua).

SEM finantza-laguntza jasotzeko, Europar Batasuneko estatuek Suspertze eta Erresilientzia Planak prestatu behar dituzte, eta, haietan, erreforma- eta inbertsio-programa bat taxutu behar dute, ekonomia lehiakorragoa, berdeagoa, digitalagoa eta kohesionatuagoa bultzatzeko.

SEM mekanismoa emaitzetan oinarritzen da, alegia, estatu bakoitzak bere Suspertze eta Erresilientzia Planak ditu; haietan, erreforma eta inbertsio batzuk aurreikusten dira, mugarri eta helburu batzuekin (M eta H); eta mugarri-helburu horiek zenbateraino betetzen diren gorabeheran iristen dira funtsak.

### 3. Zer da Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana (SEEP)?

Plan horretan dago definiturik Espainiak 2021-2026 bitartean zer estrategiari jarraituko dion SEM funtsak bideratzeko. Suspertze-plan horretan, agenda garrantzitsu bat dago inbertsioak egiteko eta egiturak erreformatzeko, dena loturik eta elkar elikatuz, hartara zeharkako lau helburu lortzeko: Espainia berdeagoa (trantsizio ekologikoa), digitalagoa (eraldaketa digitala), gizarte- eta lurralde-ikuspegitik kohesionatuagoa (lurraldearen eta gizartearen kohesioa) eta berdinzaleagoa (genero-berdintasuna) lortzeko bidean aurrera egitea.

Lau ardatz horiek hamar bultza-politika bideratzen dituzte; politika horiek nolakoak, etorkizuna halakoa. Politika horiek 30 osagai dituzte, 212 neurri eta 416 mugarri eta helburu, hala arau-jitekoak nola inbertsioa bultzatzekoak. Osagai bakoitzean, erronka edo helburu zehatz batean jartzen da arreta, eta aipatutako helburuak lortzen edo erronkak gainditzen laguntzen duten erreformak eta inbertsioak jasotzen dira. Horietarako guztietarako, erdibideko jomuga eta mugarri batzuk identifikatzen dira, bai eta espero diren emaitzak, onuradunen kopurua eta elementu bakoitzaren kostu xehatua ere.



#### 4. Zer agintari da SEEPren arduraduna?

SEEPk berak izendatzen du nor den agintari arduraduna: Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Europako Funtsen Idazkaritza Nagusia (EFIN). Europako erakundeen aurrean erantzungo du.

#### 5. Eta kontrola? Zer agintarik kontrolatzen du SEEP?

Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioko Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzailetza Nagusia (EAKN) da SEEPren kontrol-agintaritza.

#### 6. Zein da erakunde erabakitzailea?

Osagai bakoitzaren ardura duen dena delako ministerioa da erakunde erabakitzailea.

#### 7. Zein da erakunde egikaritzeailea?

Proiektuak edo azpiproiektuak egikaritu behar dituen erakundea da erakunde egikaritzeailea.

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean: azpiproiektuak egikaritzeko ardura duten sailak.
- b) Tokietako gaietan: foru-aldundiak eta udalak.
- c) Unibertsitatean: UPV/EHU.

#### 8. Eusko Jaurlaritzan zein da organo kudeatzailea?

Eusko Jaurlaritzan, sail bakoitzeko zerbitzu-zuzendaritzak izango dira organo kudeatzaileak (Segurtasun, Hezkuntza eta Osasun Sailetan izan ezik, kasu horietan Kudeaketa Ekonomikoaren eta Baliabide Orokorren Zuzendaritza, Kudeaketa Ekonomikoaren Zuzendaritza, eta Araubide Juridiko, Ekonomiko eta Zerbitzu Orokorretako Zuzendaritza izango baitira, hurrenez hurren).

Organo kudeatzaileak egiten, sinatzen eta izapidetzen ditu proiektuaren kudeaketa-txostena, aurreikuspenen txostena eta proiektuaren edo azpiproiektuaren helburu kritiko eta kritikoak ez direnen betetze-ziurtagiriak.

#### 9. Eusko Jaurlaritzan zein da erakunde sustatzailea?

Eusko Jaurlaritzan, azpiproiektuei lotutako tresna juridikoak artikulatzen eta egikaritzen dituzten zuzendaritzak dira.

#### 10. EAEn zein organok du SEM mekanismotik jasotako funtsen jarraipena eta ebaluazioa egiteko ardura?

Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzak (Eusko Jaurlaritza). Jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk emango ditu, EAEko sektore publiko osorako berberak, azken batean sailei laguntza moduko bat eskaintzearren funts berri horiek kudeatzeko eta egikaritzeko, eta funtsik itzuli beharrik izan ez dadin.



## 11. EAEn zein organok du ardura SEM mekanismoari lotutako jardueretan laguntzeko eta haien koordinazioa egiteko?

SEM mekanismoaren Informaziorako eta Jarraipenerako Sailarteko Batzordeak. Batzorde horretan dira Europako funts hauek jasoko bide dituzten sailtako zerbitzu-zuzendaritzetako titular guztiak, Aurrekontu Zuzendaritza, Funtzio Publikoko Zuzendaritza eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritza. Ekonomia eta Europako Funtsen Sailburuordetzari dagokio lehendakaritza, eta Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzari, berriz, idazkaritza.

## 12. Zer da proiektu bat?

SEEP planean, neurri batzuk definituko dira, helburu edo emaitza zenbait erdiesteko, eta hori epe jakin batean lortzeko, erakunde egikaritzailleak sortuko dira; bada, erakunde horietako bakar baten zuzendaritzapean dauden ekintza, baliabide eta bitartekoen multzoa da proiektua.

## 13. Zer da azpiproiektu bat?

Baliteke erakunde egikaritzaille bat baino gehiagok parte hartzea dena delako proiektua egikaritzen. Halakoetan, proiektua azpiproiektutan zatikatzen da. Autonomia-erkidegoek azpiproiektuak bakarrik definitu eta egikaritu ditzakete. Azpiproiektua egikaritzeko, tresna juridikoak formalizatu behar dira.

## 14. Zer da "habiaratutako" azpiproiektu bat?

Baliteke autonomia-erkidegoetako azpiproiektuak beste azpiproiektu batzuetan zatikatzea, udal edo foru-aldundi baten onerako. Horiexek dira azpiproiektu "habiaratuak".

## 15. Zer da azpiproiektu instrumental bat?

Azpiproiektu osoa edo haren zati bat administrazio publikoen baliabide propioen bidez gauzatzen denean sortzen dena.

## 16. Zer da jarduketa bat?

Azpiproiektu baten lehen zatiketa-maila da. Azpiproiektuaren kudeaketa eta jarraipena egiteko egiten da. Oro har, azpiproiektu orok jarduketa bat du gutxienez. Baliabide ekonomikoak transferitzeko tresna juridiko bat izapidetu behar den kasuetan, jarduketa bat zehaztu behar da, jarraipena eta kudeaketa egiteko.



## 17. Zer dira tresna juridikoak?

Funtsak egikaritzeko baliatzen diren egintza juridikoak dira: kontratuak, dirulaguntzak, hitzarmenak, bitarteko propioei egindako enkarguak eta kudeaketa-gomendioak.

**Kontratuak:** Kostu bidezko kontratuak dira, baina alderdietako bat, gutxienez, pertsona juridiko-publikoa izan behar da, edo, orokorrean, sektore publikoko erakunde bat.

**Dirulaguntzak:** Dirulaguntzen 38/2003 Legeak dakartzan baldintzak betez administrazio publikoek pertsona publiko edo pribatuen alde ematen duten diru oro.

**Hitzarmenak:** Ondorio juridikoak dituzten akordioak; administrazio publikoek, organismo publikoek, zuzenbide publikoko entitateek edo unibertsitate publikoek sinatzen dituzte beren artean edo zuzenbide pribatuko subjektuekin, xede erkide bat lortze aldera.

**Bitarteko propioei egindako enkarguak:** Formula honen bidez, botere adjudikatzailerik beste pertsona juridiko bati enkargatu ahal izango diote exekuta ditzala obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratuetako eta obra-emakida eta zerbitzu-emakidetako berezko prestazioak, baldin eta pertsona juridiko hori, legez, bitarteko propio pertsonifikatutzat jotzen bada.

**Kudeaketa-gomendioak:** Administrazio publikoetako organoek erabiltzen dituzte, beren barruko edo beste administrazio bateko beste organo edo erakunde batzuei enkargatzeko jarduera material edo tekniko zenbaiten egikaritzea, horretarako baliabide tekniko egokiak dituztela-eta.



## SEEP KUDEATZEKO SISTEMAK

### 18. Zein dira SEEP planaren zeharkako printzipioak?

Azpiproiektuak exekutatzeko orduan nahitaez bete behar dira. Hauek dira:

- a) Mugarri eta helburuen jarraipena egitea, eta betetzen diren egiaztatzea.
- b) Etiketa berdea eta etiketa digitala betetzea.
- c) Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko printzipioa ebaluatzea.
- d) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzeko, hautemateko eta zuzentzeko mekanismoak indartzea.
- e) Estatuko laguntzen araubidearekin bateragarri izatea eta finantzaketa bikoitza prebenitzea.
- f) Funtzen azken hartzailearen identifikazioa.
- g) Komunikazioaren arloko betebeharrak eta eskakizunak betetzea.

### 19. Zertan datza HFP/1030/2021 Agindua?

SEEP planaren osagaietan aurreikusitako neurriak proiektu eta azpiproiektuka zatikatzen dira; bada, agindu horren bidez, kudeaketa- eta jarraipen-sistema bat taxutzen eta garatzen da, proiektu eta azpiproiektu horiek definitu, planifikatu, egikaritu eta kontrolatzeko, eta haien jarraipena egiteko.

Dagozkien mugarri eta helburuak betetzen diren jakiteko, organo kudeatzaileek agiri batzuk eman beharko dituzte, alegia, jarraipen-txostenak, aurreikuspen-txostenak eta kudeaketa-txostenak.

Aginduak lau eranskin ditu: I. Terminoen glosarioa, II. Autoebaluaziorako testa eta arriskuen testa, III. Kudeaketarako erreferentziak, printzipioak eta irizpideak eta IV. Adierazpen-ereduak.

### 20. Zer da Jarraipen Txostena?

Hilero-hilero sortzen da, automatikoki, Kudeaketa eta Jarraipenerako Informazio Sistemaren bidez (CoFFEE). Zer erakusten duen? Zenbateraino egin dugun aurrera mugarrietan, helburuetan eta aurrekontua egikaritzen; planifikaziotik ezertan desbideratu garen; eta, zuzentze-neurririk erregistratu badugu, noraino garatu ditugun.

### 21. Zer da Aurreikuspenen Txostena?

Organo kudeatzaileak egiten du azpiproiektu bakoitzerako. Hiru hilean behin egiten du. Zer erregistratzeko? Zer edo zer bete gabe uzteak zer arrisku dakarren; planifikaziotik ezertan desbideratu ote garen; eta arazoa prebenitzeko edo zuzentzeko hartzen diren neurriak (hartzen baldin badira).

### 22. Zer da Kudeaketa Txostena?

Bi gauza formulatu nahi ditu: batetik, osagai bakoitzaren emaitza, betiere mugarri, helburu eta adierazleen arabera; eta, bestetik, hori lortzeko erabilitako baliabideen bolumena. Txosten hori egiteko, Kudeaketako eta Jarraipeneko Informazio Sistemaren (CoFFEE) jasotako informazioa erabiliko da, eta sei hilean behin egingo da. Organo kudeatzaileak bere gain hartzen du txostena egitea, sinatzea eta agintari arduradunaren aurrean izapidetzea.



### **23. Har dezagun HFP/1030/2021 Agindua. Zer da II. eranskineko Autoebaluazio eta Arriskuen Testa?**

Ebaluazio bat da. Ebaluazio horretan dago zehazturik SEEP planaren zeharkako printzipio bakoitzean gutxienez zer estandar bete behar den mugarri eta helburuei, proiektuei eta azpiproiektuei dagokienez. Eranskin horrek galdetegi batzuk dakartza. Galdetegion xedea da errazago autoebalatu ahal izatea ea SEEPeko organo kudeatzaileek aplikatutako prozedura egokia den printzipioak behar bezala betetzeko.

### **24. Har dezagun HFP/1030/2021 Agindua. II eranskineko Autoebaluazio eta Arriskuen Test hori nork bete behar du? Zenbatean behin?**

Kudeaketa-organo bakoitzak bete eta sinatu behar du II. eranskina. Eranskin hori urtean behin bete eta sinatu behar dute organo kudeatzaileek.

Erakunde instrumentalek ere urtero bete eta sinatu beharko dute eranskina.

### **25. Har dezagun HFP/1030/2021 Agindua. Zer dira III. eranskineko Kudeaketarako Erreferentziak, Printzipioak eta Irizpideak?**

Galdetegi bat da, neurtzeko ea SEEParen zeharkako printzipioak zenbateraino betetzen diren proiektuak, azpiproiektuak eta ekintza-ildoak kudeatu eta egikaritzeko orduan. III. eranskinak 4 atal ditu.

### **26. 4 atal horiek nork bete behar ditu? Zenbatean behin?**

III. eranskineko A atalean, mugarri kritikoak eta kritikoak ez direnak zenbateraino bete diren egiaztatzeko zerrenda bat dator, errazago jakin dezagun ea ondo betetzen ari garen hileko Jarraipen Txostena egiteko atazak. Organo kudeatzaileek beteko dute eranskina. Baina bakoitzak bere zatiak beteko ditu (azpiproiektuen definizioa eta plangintza, ekintza-ildoak egikaritzea eta azpiproiektuak egikaritzea); horretarako, beharrezkoa izanez gero, erakunde sustatzaileen laguntza izan dezakete.

DNSHri buruzko III.B eranskina erakunde sustatzaileek bete behar dute; SEM mekanismoak finantzatutako tresna juridiko bakoitzerako bana.

III.C eranskinen ez dago betetzeko ezer; SEM bidez finantzatutako tresna juridiko guztietan erantsi behar da, besterik ez.

III.D eranskina (estatuko laguntza eta finantzaketa bikoitza) erakunde sustatzaileek bete behar dute, SEM bidez finantzatutako tresna juridiko bakoitzerako bana.





## CoFFEE

### 27. Zer da CoFFEE?

CoFFEE informazio-sistema bat da. SEEP planean erabiltzen da, kudeaketa eta jarraipena egiteko. Informazioa Batzordeari helarazteko balio duen sistema bakarra da. Beraz, informazio hori ematen nolabait lagundu behar duten guztiek eskuratu beharko dute.

CoFFEEren erabilera errazteko, EFINK erabiltzaile-eskuliburu bat sortu du, beharren arabera eguneratzen duena. Ezinbestekoa da hura irakurtzea. Jarraipen-, aurreikuspen- eta kudeaketa-txostenak CoFFEE tresnaren bidez bidaliko dira.

### 28. Zer dira CoFFEEk aipatzen dituen nodoak?

Plana osatzen duen nodo edo elementu bakoitza lokalizaitzaile alfanumeriko baten bidez identifikatzen da. Lokalizaitzaile horiek testu-kate batez osatuta daude. Identifikaitzaile hori hierarkia-maila bakoitza bata bestearekin kateatuz sortzen da (Osagaia, Neurria, Proiektua, Azpiproiektua eta Azpiproiektu instrumentala).

### 29. CoFFEE horretan, rol bat baino gehiago esleitu daiteke. Zeintzuk?

**Arduradunaren rola:** Organo arduradunen eta organo kudeatzaileen titularrei dagokie. Nodo bakoitzeko, erabiltzaile bakar batek izan dezake arduradun rola.

**Arduradun baimenduaren rola:** Nodo bakoitzeko, bi erabiltzailek bakarrik izan dezakete arduradun baimenduaren rola. Arduradun baimendua nodoaren arduradunari zeregin batzuk errazteko dago; horretarako dago pentsatuta.

**Editorearen rola:** Editore-rola duten erabiltzaileek edizio-lanak egin ditzakete nodoaren informazioaren gainean, nodoari buruzko kontsulta-lanak barne.

**Galderagileen rola:** Galderagileen rola duten erabiltzaileek kontsultak egin ditzakete, ez besterik. Nodoko informazio guztia eskura dezakete, baina kontsulta moduan bakarrik.

**Eragiketaren arduradunaren rola:** Erabiltzaile honek beste baimen-politika bat du; aurrekoena ez bezalakoa. Profil honek ez du nodo jakin baten edo batzuen gaineko erantzukizunik; ordea, auditoria-modulura bakarrik sar daiteke, zehazki interes-gatazkaren menura. Kontratu eta dirulaguntzetako tresna juridikoekin lotutako eragiketa-kodeetan soilik jardun ahal izango du, betiere dena delako interes-gatazkaz den bezainbatean.

### 30. Azpiproiektu bati nola ematen zaio alta CoFFEEen?

Azpiproiektuetan, lehen etapa «Definizioa» da. Hor dator mugaturik noraino iristen den (edukia, lortu beharreko mugariak eta helburuak), noiz arte iraungo duen, zer baliabide ekonomiko izango ditugun eskura, noren ardura den kudeaketa egitea (**erakunde egikarizaitzailea eta organo kudeatzailea**). Beste alderdi garrantzitsu batzuk ere etapa honetan zehaztuko dira, hala nola ekarpen berdea eta digitala. Prozesu hori nodo baten barruan egongo da (goi-nodoa). Nodo horren arduradunak baliozkotu beharko du prozesuaren emaitza.



### 31. Zertan bereizten dira zirriborro-, baliozkotze-, berrikuste- edo "berrikusita"-faseak?

**Zirriborroa:** Edizio-fase honetan, informazioa lotuz joango gara. Zirriborrotik baliozkotze-fasera aurrera egin ahal izateko, azpiproiektua erabat definitu behar da (datu orokorrak, mugarriak eta helburuak, erabiltzaileak).

**Baliozkotzen:** Azpiproiektua guztiz zehaztuta, azpiproiektuaren erabiltzaile arduradunak "Baliozkotzen" egoerara pasatu ahal izango du, azpiproiektu horren gaineko nodoaren arduradunak baliozkotu dezan. Dagokion proiektuaren/azpiproiektuaren arduradunak uste badu azpiproiektua ez dagoela behar bezala definituta, atzera "Zirriborroa" egoerara pasatuko du, definizioa aldatzeko.

**Berrikusten:** Esan dugunez, dena delako jarduketa nodo baten barruan egongo da (proiektua/azpiproiektua). Bada, nodo horren arduradunak uste duenean ziklo guztia egoki dagoela, "Berrikusten" egoerara pasatuko du, dagokion proiektuaren arduradunak azpiproiektua berrikus dezan.

**Berrikusita:** Proiektuaren arduradunak egiten duen berrikuspena positiboa bada, azpiproiektua "Berrikusita" egoerara igaroko da, eta definizio-zikloa osatuta geratuko da. Azpiproiektua "Berrikusten" izatetik "Berrikusita" izatera igarotzeko urratsa proiektuaren arduradunak bakarrik egin dezake, ez arduradun baimenduek.



## IRUZURRA PREBENITZEA, ZUZENTZEA ETA HAUTEMATEA

### 32. Eusko Jaurlaritzak badu plan bat iruzurraren aurka; zer da?

Plan horri esker, Eusko Jaurlaritzak bermatu eta aldarrika dezake -bere jardun-esparruan betiere- SEM funtsak arau aplikagarrien arabera erabili direla kasuan-kasu, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihestu, antzeman eta zuzentzeari dagokionez.

### 33. Iruzurraren aurkako plan hori Gobernu Kontseiluak onartu zuen, 2022ko martxoaren 29an. Zer erakundek bete behar dute?

Iruzurraren aurkako neurrien plana honako hauei aplika dakieke: EAEko sektore publiko osoari, SEM funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazioei – betiere beren neurri-planik ez badute –, eta borondatez hala erabakitzen duten erakunde egikarizaillei edo organo kudeatzailei.

### 34. Zein dira iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako tresna nagusiak?

Planean, **prebentzio**-tresna hauek ezartzen dira:

- Iruzurraren aurka borroka egiteko adierazpen instituzionala.
- Azken onuradunen erantzukizunpeko adierazpena.
- Iruzurraren aurkako atala.
- Iruzur-arriskuaren inpaktuaren eta probabilitatearen hasierako ebaluazioa.
- Iruzur-arriskuaren autoebaluazioak.
- Kode etikoa.

**Detekzio**-tresna nagusiak, berriz, hauek:

- Bandera gorriak.
- Dirulaguntzen Erregistro Orokorra kontsultatzea.
- Kontratazio publikoaren plataforma kontsultatzea.

Iruzurra eta ustelkeria **zuzentzeko eta jazartzeko** tresna nagusi gisa, HFP 1030/2021 Aginduko 6.6 artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

### 35. Nork bete behar ditu iruzur-arriskuaren autoebaluazioak?

Erakunde egikarizaille bakoitzak (sailek) bete beharko ditu iruzur-arriskuaren autoebaluazioak, eskura dituen prozedurak eta kontrolak kontuan hartuta. Iruzurraren aurkako atalak, sailen lana errazteko, iruzur-arriskua autoebaluateko txantilo bat egin zuen, Administrazioan dauden prozedura eta kontrol orokorrak kontuan hartuta. Gero, Sailarteko Batzordeak onartu zuen. Ondoren, sail bakoitzak bere prozesu eta kontroletara egokitu behar zuen, eta organo kudeatzailearen titularrak sinatu.

Egiten diren autoebaluazio horiek, sailek erakunde instrumentalen esku utziko dituzte, eta haiek beren berezitasunetara egokituko dituzte.



### 36. Zenbatean behin bete behar dira iruzur-arriskuaren autoebaluazioak?

Iruzur-arriskuaren autoebaluazioak bi urtean behin edo urtean behin berrikusi behar dira, antzemandako iruzur-arriskuaren arabera. Iruzur-arriskurik hautemanetz gero, urtean behin berrikusiko da, bestela, bi urtean behin (hala dago xedaturik iruzurraren aurkako neurrien planean eta HFP/1030/2021 Aginduko 6.5 c) artikuluan).

### 37. Zer dira bandera gorriak?

Alerta-seinaleak dira. Prozedura publikoetan iruzur, ustelkeria edo interes-gatazkarik egon ote daitekeen erakusten digute (prozedura publikoak: dirulaguntzak, lizitazioak, hitzarmenak eta bitarteko propioei egindako enkarguak).

### 38. Zer prozedura daukagu bandera gorrien zerrenda betetzeko?

**Kontratazio-espedienteetan**, organo kudeatzaileak bete behar du bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda (saileko zerbitzu-zuzendaritzak).

Zerrenda horretako galderen artetik, batzuk kontratua egikaritzeari buruzkoak dira. Halakoak zuzendaritza sustatzailearen laguntzarekin bete ahal izango dira, hark izango baititu egikaritzelanari buruzko datuak (zuzendaritza horiek artikulatzen eta egikaritzen dituzte tresna juridikoak).

Adjudikazio-prozeduran, baliteke Kontratazio Batzorde Nagusiari egokitzea kontratazio-mahaiaren eskumenak eta eginkizunak gauzatzea. Halakoetan ere organo kudeatzaileak beteko du bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda, eta kontratazio-mahaiko idazkariari eskatu ahal izango dio horretarako behar duen informazioa.

**Dirulaguntza, hitzarmen edo enkarguen espedienteetan**, organo kudeatzaileak bete beharko du bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda, eta, horretarako, prozesuan parte hartzen duten zuzendaritza sustatzaileen, ebaluazio-batzordeen edo gainerako organoen laguntza eskatu ahal izango du.

Bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda betetzerakoan, garrantzitsua da kontuan hartzea erantzun beharrekoa dela ea, prozeduran, detektatu den, ala ez, deskribapenean galdetzen diren inguruabarretakoren bat.

Halako ezeren arrastorik atzeman ez bada edo halakorik bat ere ez badago, erantzuna EZ izango da. Gainera, gogoan izan behar da bandera gorriak agertzeak ez duela esan nahi iruzurra dagoenik.

### 39. Nork sinatu behar ditu bandera gorriak egiaztatzeko zerrendak?

Bandera gorriak egiaztatzeko zerrendak organo kudeatzailearen arduradunak sinatu behar ditu, bera baita dokumentu horren arduraduna (Iruzurraren aurkako neurrien plana).



#### **40. Har dezagun Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren 2/2022 Zirkularra. Han ere badira bandera gorrien eranskin batzuk; horiek ere bete behar al dira?**

Ez da beharrezkoa zirkular horretako bandera gorrien zerrenda eta eranskinak betetzea. Zirkularreko I. eranskina "D" fasea izapidetzeko orduan erabiltzeko dago pentsatua (kontratuaren aurretiazko fiskalizazioa); eta II. eranskina, berriz, "O" fasean, egikaritze-lanarekin eta fakturarekin batera. Eranskin horien ordez, bandera gorriak egiaztatzeko zerrenda erabil daiteke. Hala ere, "D" faseko espedientearekin, bandera gorrien zerrendan lizitazio-faseari dagozkion galderak bete behar dira (1-45 eta 54-57 galderak); eta "O" fasea izapidetzen dugunean, egikaritze-faseari dagozkion galderak bete behar dira (46-53 eta 58-82 galderak).

## INTERES-GATAZKA

### 41. Zer da interes-gatazka?

Interes-gatazka dago, baldin eta ezbaian badago SEM kudeatu behar duten agintariek beren funtzioak alderdikierarik gabe eta objektibotasunez beteko ote dituzten, tartean familia, afektibitatea, kidesun politiko edo nazionala, interes ekonomikoa edo, zuzenean edo zeharka, interes pertsonaleko beste edozein arrazoi ageri dela-eta.

### 42. Zertan datza HFP/55/2023 Agindua?

Agindu horretan dago arauturik SEEP egikaritzen duten prozeduretan nola aztertu -sistematikoki eta automatizaturik- interes-gatazka, data mining tresna informatiko batean oinarrituta (Minerva). Era berean, interes-gatazkarik ez dagoela adierazteko deklarazioetan (IGEA) gutxienez zer adierazi behar den ere zehazten du.

### 43. Nork sinatu behar ditu IGEAk?

Funtsak kudeatzen edo egikaritzen parte hartzen duten guztiek sinatu behar dute **HFP/1030/2021 Aginduko IGEA**: kontratazioak egiteko/dirulaguntzak emateko organoak, lizitazio-dokumentuak/oinarriak edo deialdiak idazten dituzten langileek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzen dituzten adituek, eskaerak/eskaintzak/proposamenak ebaluatzeko batzordeetako kideek eta prozedurako kide anitzeko gainerako organoek.

Nork sinatu behar du **HFP/55/2023 Aginduko IGEA**?

- a) Kontratuetan: kide bakarreko kontratazio-organok eta kide anitzeko kontratazio-organoko kideek, bai eta kontratazio-organolari laguntzeko sortzen diren kide anitzeko organoko kideek ere, baldin eta, kontratazio-prozedura horietan, eskaintzak baloratzeko eta esleipena proposatzeko faseetan parte hartzen badute.
- b) Dirulaguntzetan: dirulaguntzak emateko eskua duen organoak, eta eskabideak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideek, eskabideak baloratzeko eta laguntzak nori eman ebazteko faseetan.

Kontratazio-prozeduren edo dirulaguntzen bi faseetan parte hartzen dutenek bi IGEAk sinatu beharko dituzte, hala nola Gobernu Kontseiluko kideek.

### 44. HFP/55/2023 Aginduak badakar interes-gatazkaren analisi bat. Zertan datza?

“Minerva” tresna informatikoaren bidez (tresna hori erabiltzeko dio aginduak), aztertuko da ea erabakiak hartu behar dituzten langileek, kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan parte hartzen duten langileek eta prozedura bakoitzean parte hartzen dutenek badaukaten zuzeneko edo zeharkako familia- edo sozietate-loturarik eragin dezakeenik interes pertsonal edo ekonomikoren bat ernaraztea eta hark interes-gatazka piztea.



#### 45. Noiz egiten da interes-gatazkaren azterketa?

Prozedura bakoitzeko eskaintzak edo eskabideak baloratu aurretik (*ex ante*) egin behar da azterketa.

#### 46. Nor da HFP/55/2023 Aginduak zehazten dituen eragiketen arduraduna?

Eragiketen arduradunak dira kontratazio-organoa edo dirulaguntza emateko eskumena duen organoa.

Nori dagokion jakiteko, sail bakoitzeko egitura organikoari buruzko dekretua kontsultatu behar da. Adibidez, Ekonomia eta Ogasun Sailean, 1.000.000 €-tik beherako kontratuetan, zerbitzu-zuzendaria da kontratazio-organoa, eta, zenbateko horretako edo kontratu handiagoetan, sailburua.

#### 47. CoFFEE nork identifikatzen ditu eragiketen arduradunak?

CoFFEE aplikazioan, SEEP planeko organo kudeatzaileek eta kudeatzaile instrumentalek identifikatuko dute nor den eragiketa bakoitzaren arduraduna. Gainera, eragiketa-arduradun bakoitza CoFFEE aplikazioak sortutako kode baten bidez identifikatuko da.

#### 48. Zer da eta nola lortzen da HFP/55/2023 Aginduak aipatzen duen CRO kodea?

CRO eragiketaren erreferentzia-kodea da. Kode horren bidez egin daiteke interes-gatazkaren analisia, Aginduan zehazten den tresna informatikoa erabiliz. CRO lortzeko, CoFFEE aplikaziora jo beharko da, han sortzen baita kodea.

#### 49. Zer da benetako titulartasuna?

Zuzenean edo zeharka pertsona juridiko baten kapitalaren edo boto-eskubideen % 25 baino gehiago duen edo kontrolatzen duen pertsona fisikoa edo pertsona fisikoak dira, edo bestela, beste bitarteko batzuk erabiliz, eta zuzenean edo zeharka, pertsona juridiko baten kudeaketa kontrolatzen dutenak. Interes hori fideikomisoaren bidez mantentzen bada, fideikomisoduna bera edo haren gainean nolabaiteko kontrola duen edonor benetako titular gisa erregistratuko da.

#### 50. Zeintzuk dira MINERVA analisiaren emaitzak?

Hiru izan daitezke Minerva tresnak eskaintzen dituen emaitzak:

- a) Ez da bandera gorririk aurkitu. Prozedurak aurrera jarrai dezake.
- b) Bandera beltz bat edo batzuk aurkitu ditugu. Ez dago informaziorik interes-gatazkaren arriskuari buruz, ez dago daturik.
- c) Bandera gorri bat edo batzuk aurkitu ditugu.



### **51. Aztertu dugu interes-gatazka HFP/55/2023 Aginduko tresna informatikoaren bidez, eta bandera beltzak agertu dira. Zer egin?**

Bandera beltzek adierazten dute ez dagoela informazio-rik benetako titulartasunari buruz, edo hildako modura ageri dela. Kontratazio-organoek edo dirulaguntzak ematen dituztenek parte-hartzaileei galdetuko diote ea benetan nor den bandera beltza lortu duen enpresaren titularra. Informazio hori informazio-eskaera egin eta bost egun balioduneko epean eman beharko da, kontuan hartuta bandera beltzak ez duela eteten kontratazio- edo dirulaguntza-prozedura. Informazioa epe barruan ematen ez badute, prozeduratik kanpo geratuko dira (HFP/55/2023 Aginduko 7. artikulua).

### **52. Aztertu dugu interes-gatazka HFP/55/2023 Aginduko tresna informatikoaren bidez, eta bandera gorriak agertu dira. Zer egin?**

Eragiketaren arduradunak bandera gorri horren berri erabakia hartu duenari eman beharko dio, eta haren goiko arduradunari, abstenitu egin dadin bi egun balioduneko epean (abstenitu behar baldin badu). Beste norbaitek ordezkatzeko du, eta, harekin, atzera berriro egingo da interes-gatazkaren arriskuaren analisia. Bandera gorria daukan horrek nagusi hierarkikoari adierazten badio ez duela onartzen informazioa baliozkoa denik, adierazi duena berretsi egin beharko du, beste IGEA bat sinatuz, eta hori guztia bi egun balioduneko epean. Abstentzio hori gertatzen ez bada, eragiketaren arduradunak tresna informatikoari (Minerva) informazio gehiago eskatuko dio detektatutako arriskuei buruz, adierazteaz batera ez dela inor abstenitu (HFP/55/2023 Aginduan dator ezarrita tresna hori). Informazio gehigarri hori erabakitzailearen nagusi hierarkikoari helaraziko zaio. Ofizios edo dagokion nagusi hierarkikoak eskatuta, eragiketaren arduradunak Iruzuraren Aurkako Atalera jo ahal izango du, hark, bi egun balioduneko epean, txostena egin dezan, jakiteko ea, eskura dagoen informazioaren arabera, abstentzioa bidezkoa den ala ez. Iruzuraren aurkako Atalak beste txosten bat eska dezake, EAKNren iritzia jakiteko. Hark bi egun balioduneko epean eman beharko du bere iritzia. Hortaz, lehengo epeari beste bi egun gehituko zaizkio. Data mining tresna informatikoaren informazio gehigarria, erabakitzailearen alegazioa eta, halakorik baldin badago, Iruzuraren aurkako Atalaren txostena ikusita, nagusi hierarkikoak ebatziko du erabakitzailearen parte-hartzea onartzea edo abstenitzeko agintzea (HFP/55/2023 Aginduaren 6. artikulua).

### **53. Egin kontu onuraduna administrazio publiko bat dela, edo sektore publikoko erakunde bat. Interes-gatazken azterketa MINERVAren bidez egin behar al da?**

EFINK berretsi duenez, dirulaguntza administrazio publikoei edo sektore publikoko erakundeei eman bazaie, EZ da beharrezkoa interes-gatazken azterketa data mining tresna informatikoaren bidez egitea.





## FINANTZAKETA BIKOITZA

### 54. Zer da finantzaketa bikoitza?

Har dezagun Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1046 Erregelamendua (EB, Euratom), 188. artikulua, ea zer dioen Batasunaren aurrekontu orokorrari aplikagarri zaizkion finantza-arauei buruz: "Aurrekontuaren bidez ezin izango dira inola ere bi aldiz finantzatu gastu berberak".

### 55. Zer egin, SEEP bidez finantzaketa bikoitzik egon ez dadin?

Tresna juridiko guztietan garbi utzi behar da ezen onuradunak, gastu bera finantzatzeko beste inolako funtsik jaso badu, jakinarazi egin behar duela, eta, gainera, erantzukizunpeko adierazpen bat bete beharko du, finantzaketa bikoitzik ez duela adieraziz (ikus KPEFZk egindako tresna juridikoen ereduak).

Dirulaguntza ematen duten erakundeek eta organo kudeatzaileek Dirulaguntzen Datu-base Nazionalen (BDNS) eta EAeko Dirulaguntzen Erregistro Orokorrean begiratu beharko dute, sistematikoki. Datu-base horretan dago erregistraturik funtsen azken onuradunei buruzko informazioa, finantzaketa bikoitza saihesteko. Kontsulta horiek noiz egin? Justu emakida erabaki aurreko unean eta obligazioa onartu eta ordainketa proposatu aurreko unean.

Kudeaketa-txostenetan gogorarazten denez, finantzaketa bikoitzik ez dagoela aipatu beharra dago, eta gai horri buruzko auditoretzen eta kontrolen laburpen bat ere egin behar da, halakorik baldin badago.

1030/2021 Aginduko II.B.6 eranskina bete.

HFP/1030/2021 Aginduko III.D eranskina bete.



## AZKEN HARTZAILEA IDENTIFIKATZEA

### 56. Nola identifikatzen da funtsen azken hartzailea?

**Diru-laguntzen prozeduretan**, deialdiarekin batera, datu hauek eskatu beharko dira, onuradunak identifikatzeko, pertsona fisikoak zein juridikoak izan: Onuradunaren IFZ, pertsona fisikoaren izena edo pertsona juridikoaren izen soziala, helbide fiskala, administrazio publikoen arteko datu-lagapenaren onarpena, eta SEEP planaren zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Jarduera ekonomikoak garatzen dituzten onuradunek, gainera, ZAEako enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzailen erroldan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, foru-aldundietako baliokidea aurkeztu, laguntza eskatzen den egunean garatutako jarduera ekonomikoa islatzen duena.

**Lizitazio-prozeduretan**, datu hauek eskatu beharko dira, kontratista eta azpikontratatistak identifikatzeko: Onuradunaren IFZ, pertsona fisikoaren izena edo pertsona juridikoaren izen soziala, helbide fiskala, administrazio publikoen arteko datu-lagapenaren onarpena, eta SEEP planaren zeharkako printzipioak betetzeari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. Kontratatistek, gainera, ZAEako enpresaburuen, profesionalen eta atxikitzailen erroldan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo, bestela, foru-aldundietako baliokidea aurkeztu, lizitazioan parte hartzen duten egunean garatutako jarduera ekonomikoa islatzen duena.

## KOMUNIKAZIOA

### 57. Komunikazioaren aldetik, zer betebeharrak dakar SEEP planak?

Plana egikaritzearekin lotuta dauden komunikazioetan, SEEP planaren logo ofiziala jarri beharko da (Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana), baita EBren ikurra ere, zuzen eta ondo ikusteko moduan, adierazpen honekin batera: «Europar Batasunak – Next Generation EUk finantzatuta».

Europar Batasunaren ikurra gutxienez beste logotipoak bezain nabarmen eta agerian erakutsi beharko da.

Esparru honetan gauzatzen diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek honako erreferentzia hau izan beharko dute, bai goiburuan bai gorputzean: «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana – Europar Batasunak finantzatua – NextGenerationEU».

SEM mekanismotik Batasunaren finantzaketa jasotzen dutenek finantzaketa hori Batasunetik iritsi zaiela aitortu beharko dute, ondo ikusteko moduan.

Euskadiko marka-eskuliburuan ezarritakoak dira erabili beharreko logoak:



Hargatik eragotzi gabe konferentzia sektorialetan edo ministerioen aldetik beste logo batzuk sartzeko eskatzea.

### 58. Komunikazioan, zer dokumentu hartu behar dira kontuan?

SEEP planak badu eskuliburu bat komunikaziorako. Derrigorrezkoa da hango jarraibideak betetzea. Konferentzia sektorialean beste baldintza gehigarriak ezartzen bada, horiek ere nahitaez bete beharrekoak dira. Gainera, organo kudeatzaileen betebeharra da onuradunek egiten dutena gainbegiratzea, eta egiten diren komunikazioei buruzko frogak biltzea, hala nola argazkiak edo pantaila-argazkiak.

SEEP planaren komunikazio-eskuliburuaz gain, Eusko Jaurlaritzak badu beste eskuliburu bat Euskadiren ikusizko nortasunari buruz idatzia. SEM mekanismoarekin lotutako komunikazio guztiek Euskadiko Nortasun Bisualaren Eskuliburuan ezarritakoa bete behar dute, bai hizkuntzetan eta bai logoetan ([Manual Identidad Corporativa - Econom & # 237; a - Eusko Jaurlaritza - Euskadi.eus](#)).



## PROZEDURAREN ESKULIBURUA

### 59. Zein da prozedura-eskuliburuaren helburua?

Helburua: prozedura-eskema orokor bat deskribatzea kudeaketa- eta kontrol-atazetarako. Norentzat: SEM bidez finantzaturako jarduketak egikaritzen parte hartzen duten erakundeentzat.

### 60. Zer aplikazio-eremu du prozedura-eskuliburuak?

Prozedura-eskuliburua EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeei aplikatuko zaie eta, bereziki, sailei –haiek egikaritzen baitute SEEP plana– eta gainerako erakunde instrumentalei.

### 61. Eskuliburuan badira auditoretza-pistako check list batzuk. Zertarako balio dute?

Ziurtatzeko, batetik, SEM bidez finantzaturako tresna juridiko guztiek betetzen dituztela bai prozedura, bai SEEP planak dakartzan betekizunak; eta, bestetik, kontrola eta auditoretza egiten duten erakundeen aurrean hala dela garbi uzteko.

Hori da biderik seguruena egiaztatzekeo gastuak SEM araudi osoaren arabera egiten direla.



## KONTROL PLANA

### 62. Zer da Kontrol Plana?

Agiri bat da, sei hilean behin egiten da, ziurtatzeko kudeaketa-txostenean emandako informazioa aldez aurretik egiaztatuta dagoela. Berme batzuk eskaintzen dizkigu -hori da helburu nagusia- arrisku eta kontrolen kudeaketa-sistemaren diseinuaz eta ezarpenaz, eta jakiteko SEM mekanismoaren zeharkako printzipioak benetan betetzen direla.

### 63. Nahitaezkoa al da Kontrol Plana onartzea? Eta zer dokumentu onartu beharko lirateke?

Badago tresna metodologiko bat kontrol-plana egiteko: Kohesio Politikaren eta Europako Funtsen Zuzendaritzak egin zuen, eta SEM mekanismoaren Informaziorako eta Jarraipenerako Sailarteko Batzordeak onartu. SEEP planak ez du kontrol-plana ezinbestean eskatzen. Ez da derrigor onartu behar. Prozeduren eskuliburuarekin erabilitako sistema berari jarraituz, Sailarteko Batzordeak gomendatu du sail bakoitzak egokitu eta onar dezala kontrol-planaren gida.

### 64. Noiz egin behar da Kontrol Plana?

Kontrol Plana sei hilean behin egiten da, eta, beraz, sei hileko bakoitza amaitzen denetik aurrera (ekitaldi bakoitzeko ekainaren 30a eta abenduaren 31), sail bakoitzeko kontrol-teknikariek hilabete natural bat izango dute plana egin eta diseinatzeko.

### 65. Zer fase ditu Kontrol Planak?

Kontrol Planak 2 fase ditu. Bat, ex ante da: prozedura-eskuliburuak check list bat dakar, bada, SEM mekanismoaren bidez finantzaturako espediente guztietan bete beharko da, ziurtatzeko tresna juridiko guztiek betetzen dutela SEEP planaren araudia.

Bestea, Ex post da: egikaritzen hasita dauden espediente batzuk hartu, eta zertan diren ikustea. Fase honetan, egiaztatu behar da ea egindako gastuak eta esleitutako zenbatekoak bat datozen. Horretarako, O kontabilitate-fasean dauden espedienteak hartuko dira kontuan; eta, zer espediente aztertu behar den zehazteko, Kontuen Auzitegiaren metodologia erabiliko da (kontrol-planean azaltzen da).

### 66. Kontu egin seihileko batean ez daukagula espedienterik O fasean; zer gertatuko da? Sailek zer kontrolatuko dute? Erakunde egikaritzailleak kudeaketa-sistemari eta zeharkako printzipioei buruz bete dituen check listak bakarrik?

Ekitaldiren batean ez baldin badago espedienterik O kontabilitate-fasean, aurreko seihilekoetan O kontabilitate-fasean sartu diren baina beste kontrol-plan batzuetan aztertu ez diren espedienteak aztertu beharko dira.



**67. Lagina aukeratzekoan, N populazio-tamaina jakin batetik abiatuta, laginaren tamaina beti berdina da (maximo bat dago). Ez al luke handiagoa izan behar populazioak gora egin ahala?**

Aplikaturako metodologiaren arabera (Kontuen Auzitegia), lagina 73 espedientekoa izango da gehienez. Horregatik, eta kontrolaren bidez ahalik eta espediente gehienera iristen saiatzeko, Kontrol-Planean bigarren aldagai bat sartu da: estaldura-ehunekoa:

*"73 espedienteak hautatu ondoren, egiaztatzen bada hautaturako zenbatekoak batuta ez garela biztanleriaren % 50era iristen, lagina handitzea gomendatzen da, gutxienez % 50eko estaldura-ehunekoa lortu arte; hau da, lagina handitu beharko da harik eta bermatu arte egikaritutako zenbatekoaren gutxienez % 50 egiaztatzen dela.*

Hau da, 73 espediente horiekin ez baldin bada estaltzen egikaritutako gastuaren % 50, zenbateko handieneko espedienteak hautatu beharko dira, harik eta kontrol-planean egikaritutako zenbatekoaren gutxienez % 50 estali arte.

**68. Zeintzuk joko dira gastua egiaztatzeko agiritzat?**

Kontrol-planaren eginkizun nagusietako bat da ziurtatzea tresna juridikoen zenbatekoa eta zenbateko ziurtatua edo fakturatua bat datozela. Horretarako, gastuaren egiaztagirizat hartuko dira fakturak, obra-ziurtagiriak eta abar, hau da, benetan egikaritutako gastua egiaztatzen duten agiriak.

**69. Kontu egin Sailak baduela azpiproiektu bat % 100 egikaritua (zenbatekoaz ari gara). Aztertu beharreko laginerako hautatu dute; baina, gastu eta ordainketaren egiaztagiriak biltzeko fasea hasten denean, ikusten da ez dagoela horrelako agiririk, edo ehuneko askoz txikiagoa dagoela egiaztaturik, oraindik ez direlako benetan egikaritzen hasi, edo hasi besterik ez direlako egin. Zer egin?**

Gure gomendia da indarrean den aldian uztea identifikaturik zer gertatu den, bai lankidokumentuan (egiaztapen-koadroa) bai Emaizten Txostenean, eta hurrengo aldietan jarraitzea, hau da, kontrola hurrengo seihilekoetara eramatea, espedientea guztiz egikaritu arte. Ikusapena hurrengo aldietan egite horrek esan nahi du jarduketa horren gastuaren eta ordainketaren egiaztagiriak eskatu behar direla, jarduketa benetan egikaritzen ari dela ziur jakiteko, baina ebaluatu beharreko biztanlerian sartu beharrik gabe.